



STEE-EILASek Hondarribiako irakasleen ustezko errugabetasuna aldarrikatzen du

Komunikabide batzuen sentsazionalismoa kritikatzeko du

Hondarribian gertaturikoak oraindik iritzi publikoa astintzen du, eta batez ere haurtzaro, nerabezaro eta hezkuntzarekin zer ikusia dugunoi. Oraindik toki deigarri bat du komunikabideetako izenburuetan, batzuetan badirudi interes gehiago dutela lintxatu beharreko errudunak bilatzen, gaia sakon aztertzen baino, berriro gerta ez dadin.

Ildo honetan komunikabide batzuek institutuko irakasleak jarri dituzte jopuntuan eta aztoratuta galdetzen dute ea nola den posible gertatzen ari zenaz ez ohartzea.

- ? Hau diotenek lau lerro irakurri balute, jakingo lukete ikasleen arteko ia jazarpen guztiak ematen direla helduen presentzia txikiagoa ematen den toki eta denbora tartetean.
- ? Bullying-ari buruz lau lerro irakurri balute, honetaz gain, jakingo lukete erasotzaileek isiltasunaren legea ezartzen dietela biktimei, mehatxu zuzenekin, taldeak biktimari ez kontatzeko ezartzen diona eta biktimak berak sentitzen duen lotsaren egoerarengatik, maiz errudun sentitzen baita. Horregatik, biktimen %20ak ez dio inori kontatzen. Kontatzen dutenek lagunei kontatzen diete. Gurasoei %36ak soilik kontatzen die eta irakasleei edo ikastetxeko beste edonori ia inork ez dio kontatzen.
- ? Horretaz gain, bere buruari galdetu baliote irakasleek eta beste pertsonalak duen prestakuntza espezifikorik buruz, ikasleen artean bullying kasuak topatzeko, jakingo lukete, gai honetan prestakuntza eskaintzak oso eskasak izan direla hezkuntza agintarien aldetik.

Nahiz eta prestakuntza espezifikorik ez izan, duela urte anitz irakasleek aurre egiten diote bullying-ari, interes, intuizio eta borondate handiz; kasu askotan nahiko izan da detektatzeko eta biktimen oso larriak diren egoeretan konponbidean jartzeko, erasotzaileak berreskuratzeko eta lekuko pasibitatea hausteko. Hau guztia baloreetan oinarritutako hezkuntza planteamendu baten barruan, hezkuntzako eta ikastetxetako profesional asko konprometitua daudenarekin, horien artean Hondarribiako Talaia Institutua.

Hezkuntza Sailak badu erantzunkizuna, Administrazioa da gertakariak gertatu diren lekuaren titularra eta ez ditu bultzatu ikasleen jazarpena prebenitzeko neurriak eta langileen prestakuntza, 1999an EAeko Arartekoak hezkuntzako agintari guztiei neurri horiek har zitzatela gomendatu zien arren. Neurri horien artean biktimei arreta sistema bat ezartzearena zegoen baita Eusko Jaurlaritzak ezarri duen web orriarena ere, Jokinek ez zuen aukerarik izan sistema horietara jotzeko.

Epaiketa mediatikoak aspaldi epaitu ditu Hondarribiako irakasleak, beraz, eskatzen dugu epaiketa prozesuak lehenbailehen argi dezala beraien errugabetasuna.

Ustezko erasotzaileei buruz esan behar dugu, legeriak berak agintzen badu delituren bat egiten duten pertsona helduekin hartzen diren neurrien helburua bergizarteratzea izan behar duela, helburu horrek garrantzi handiagoa izan behar du gazteak diren heinean. Hezkuntza eta laguntza espezializatua beharrezkoak dira gazte hauentzat nahiz lekuko guztientzat.



Berriro gerta ez dadin. Titularrak izango diren beste berri batzuk ailegatuko dira laster, Jokinen suizidioa baztertuko dutenak komunikabideetatik. Baina hezkuntza komunitatearentzat ez dira sekulan gauzak berdinak izango. Inork ez du zalantzan jarriko inoiz bullying-aren arazo larria dela, ezta eragile guztien prestakuntza behar dela. Ez da zalantzan jarriko antibullying planak behar direla ikastetxe guztietan, Hezkuntza Sailak modu egokian antolatutakoak.

Baina horretaz gain, gertaera hauek hezkuntza sistemaren muinari eragiten diote, hauetan maiz edukiek garrantzi handiagoa izan dute baloreetan oinarritutako hezkuntza baino. Gure lehentasuna, eskolan eta gizartean elkarrekin bizitzeko gaitasuna duten pertsonak hezitzea da, bere hurkoak errespetatzeko gaitasuna duten pertsonak eta elkarrekin lan egiteko gauza direnak.

Berriro ere aho bete hortz geratzen gara gizarte eta eskolaren arteko borrokarekin, honek ez baitu laguntzen eskolak sustatu behar dituen konbidentzi, kooperazio eta errespetu baloreetan. Nekez lortuko dugu hezkuntza komunitatearen partaideen arteko errespetua handiagotzea, gizartean ez bada errespetua eta laguntza ematen eta honen ordeztu lintxamendu morala ematen bada. Orain inoiz baino gehiago gizarte osoaren beharra dago kooperazio, kolaborazio eta ulermenerako ereduak ezartzeko. Orain inoiz baino gehiago beharrezkoak gara guztiok, elkarrekin lan eginez datozen belaunaldiak hezitzeko.